

BERRIZKO BESOITAORMAETXEA: ETXOLATIK BASERRIRA

BESOITAORMAETXEA DE BERRIZ DE LA CABAÑA AL CASERÍO

Teresa Campos López
teresa.campos@ehu.eus

BERRIZKO BESOITAORMAETXEA BASERRIAREN IKERKETA ZIENTIFIKOA

ESTUDIO CIENTÍFICO DEL CASERÍO BESOITAORMAETXEA



Besoitaormatxea baserria gaur egun



Besoitaormatxea baserria berrikuntza lanak hasi baino lehen



Ikerketa arkeologikoen argazki batzuk

Euskal arkitekturaren adierazpen zabalen artean, baserria da adibiderik esanguratsuena. Eraikin hauen sendotasunak eta neurriak, haien harrizko eta zurezko hezurdurek, zutik diraute oraindik.

Familia bizitzeko etxea edo nekazaritza eta abeltzaintzako ustiatagia baino gehiago da. Baserriaren helburua bere burua hornitzea da eta eraikin bakar batean bil ditzake hainbat funtzio: etxebizitza, ukuilua, mandioa, dolarea, biltegia, upategia, lantegia, ganbara, lastategia, usategia, erlategia eta abar. Bestalde, eraikin horietan islatzen da garaian garaiko moda eta gustuak, materialen eta estiloen arabera.

Euskal baserrien ezaugarrietako bat izena da; agintariak edo bizilagunek aitortu eta historian zehar nekez aldatzen da.

GARATUTAKO IKERKETA...

XII. MENDEA/Siglo XII

Harri eta egurrezko eraikina sortu baino lehen etxolak nagusi ziren
Antes de los edificios de piedra y madera: las cabañas

Gaur egun da euskal nekazariak Erdi Aroan zituzten etxebizitzet buruz dugun informazioa eskasa da. Dena den, poliki-poliki, esaterako kasu honetan, gero eta datu gehiago ditugu. Ziur aski, garai horretako etxebizitzak bi isurkiko estalkia eta landare-hesiko itxiturak izango zituzten, eta barnealdea bi girotan banatuta egongo zen. Hala ere, horien erabilera erreala buruzko hamaika arlo ditugu oraindik arakatzeko.



XII. mendeko baino lehenagoko etxola. Marrazkia: Imanol Larrinaga.



XVI. mendeko baserria. Marrazkia: Imanol Larrinaga.

XVI. MENDEA/ Siglo XVI

XVI. mendeko baserria, etxe modernoaren sorkuntza
Nacimiento de una vivienda moderna

Oraindik ere, zutik diraute XVI. mendean pentsaera moderno eta zorrotzarekin eraikitako baserriak, harriz eta egurrez, teknika ezin hobekak erabiliz, Besoitaormatxea bezalaxe.

Habedun dolarea duen baserria da gurea, lan tresna eta lanerako eszenatoki iraunkorra. Eraikin trinko bakar batean hazten zen ganadua, baita uztak jaso ere, eta bertan ekoizten ziren familiaren oinarritzko beharrianak.



XVIII. mendeko baserria. Marrazkia: Imanol Larrinaga.

XVIII. MENDEA/Siglo XVIII

Baserria artoaren garaian: aldaketak eta eraginak
El caserío en la época del maíz: cambios e influencias


Euskal laborarien bizitza eta ohiturak nabarmen aldatu ziren, XVIII. mendean artoa eta landare amerikarrak agertu zirenean.

Larriediak desagertzeak ganaduari sorrarazi zion kaltea konpontzeko, arbi landaketekin eta behiak eta idiak ukuilu barruan lotzen hasi ziren. Goian, etxebizitzaren aurrealdean, sabaia zegoen egurrezko hormekin mugatuta. Artaburuak lehertzeko lekuri egokiena bihurtu zen.

ONDARE HEZKUNTZA ETA ZABALKUNDEA EDUCACIÓN PATRIMONIAL Y DIFUSIÓN



Ikerketako landa lana eta laborategi lana



Indusketako 3D dokumentazioa eta berreraikitze birtuala

Besoitaormatxea daukagu euskal baserrien artean adibiderik erakusgarrienetarikoa bat.


Egitasmo honen lehenengo urratsak arkeologia-indusketa eta ikerketa izan ziren. Hala ere, indusketa-prozesuan bertan, nabarmen geratu zen esku artean genituen datuek garrantzi itzela zutela. Hau da, dokumentaturiko aztarnak garrantzitsuak ziren baserriaren sorkuntza eta garapena ulertzeko, baita Euskal Herriko baserrien bizimoduaren ezaugarriak eta berezitasunak aztertze ere: aukera izan dugu bizimoduaren ibilbidea arakatzeko, etxolatik baserrira hain zuzen ere, data zehatza batekin (C14ren bidez).

Azken finean, hau dena gure erroak ezagutzean datza. Jakintza hori gabe ezin dugu gure ondasunaz gozatu, ezta babestu ere.

ONDARE HEZIKETAREN HELBURU:


Bi lerro azpimarratu eta islatu egin ditugu infografian:

- MARRAZKI HANDIETAN:** Baserrietako arkitektura-bilakaeraren gaineko azterketa egin dugu; denboran zehar eraikinetan sortutako aldaketak eta eboluzioa ezagutzeko: eraikina nolakoa zen, barruan zer egin zuten eta bizilekuaren eta bizimoduaren garapena adierazi ditugu.
- MARRAZKI TXIKIETAN:** Hainbat bakarkako elementu garai-garaiko zehaztasun batzuk azaldu nahi dugu. Haien artean, XII. mendeko siloa (zereal aleak gordetzeko) eta gero, horren orde, garaia agertuko da XVI. mendean. Dolarea ere garrantzitsua da XVI. mendeko baserriaren bihotza eta muina delako.



Marrakzi txikiak: Siloa, garia eta dolarea. Marrakziak: Imanol Larrinaga.

LAN TALDEA: Bidea luzea, sustagarria eta emankorra izan da; diziplina askotarikoak elkartu gara proiektu hau garatzeko.



EMAITZAK/Resultados

ZER LORTU DUGU?/ ¿Qué hemos conseguido?

Lan arkeologiko eta etnografiko nahiko konplexu bat zabaltea eta irudien bitartez ulergarria eta ikusgarria izan dadila.

Hemos conseguido que un trabajo arqueológico y etnográfico de gran complejidad sea atractivo y entendible.

ZER HARTU DUGU KONTUAN? ¿Qué hemos tenido en cuenta?

-Ikerketaren emaitzak eta lan zientifiko bat zabaltea eta ulergarria bihurtzea. Hacer entendibles los resultados científicos.

-Eredu garatzea. Lan honen ondorioekin Euskal Herriko baserrien garapena ere islatzen da. A través del estudio de un ejemplo concreto, hemos abordado el conjunto, siendo modelo para todo el territorio.

-Generoren ikuspegia, emakumezko eta gizonezko benetako lana eta rolak plazaratzea. Cuidando la perspectiva de género, nos hemos acercado al papel real de hombres y mujeres en los caseríos.

-Zehaztasun guztiak kontuan hartzea: garaiko arropa, animaliak, abereak, landareak, paisaia... Hemos tratado de tener cuenta los detalles: la ropa de la época, los animales que había, las plantas, el paisaje...



Besoitaormatxearen egindako hainbat ekitaldi: Aurkezpena Berrizeko biztanleentzat, bisita gidatuak, artikulak ...



Besoitaormatxearen prentsaurkeak.



BESOITAORMAETXEA
LIBURUXKA/TRIPTICO



BESOITAORMAETXEA
Euskal baserriaren eredu
Bideoa, 3 min



EITB TEKNOPLIS
Baserriaren aurreko etxe haiek
Bideoa, 15 min



BESOITAORMAETXEA
Modelo del caserío vasco
Vídeo, 3 min



EITB TEKNOPLIS
El caserío, un lugar donde cobijarnos
Vídeo, 15 min



Besoitaormatxea euskal baserriaren
jatorria eta oinarria
Labayru Fundazioa
Bideoa, 10 min



“Ni bizi naizen etxea hain da zaharra...”
G. Aresti